

# Zuk zeuk egin

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

Ezagutzen duzu *Zuk zeuk egin* mugimendua? Sekuentzia honetan, *Zuk zeuk egin* edo *Do it yourself* mugimenduari buruz hitz egingo dugu.

Gaiari heldu aurretik, pentsatu. Zertan zara zu trebea? Zer dakizu konpontzen? Eta zertan ez zara batere trebea?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....



## 1. Bideoaren ulermena



Bilboko Espacio Open gunera joan gara eta bertako kultur kudeatzailea den Ainhoa Riveiro elkarrizketatu dugu. Bideoan Ainhoak esandakoak laburtu dizkizugu. Ikusi bideoa eta kokatu hitzak dagokien lekuan:

gure kabuz

kontsumitzen

arlotan

berrerabiltzea

edozer gauza

egile

*Do it yourself* XX. mendearen hasieran sortu zen eta helburua kontsumitzailea

bihurtzea zen. Birziklatzea, \_\_\_\_\_, ingurumena zaintzea eta gutxiago produzitzea ziren helburuak; \_\_\_\_\_ gauzak konpondu eta gutxiago kontsumitzeko.

Espacio Open gunean, kultura, gizarte eta teknologia \_\_\_\_\_ egiten dute lan eta proiektua martxan jartzeko *Do it yourself* filosofian oinarritu ziren. Ainhoaren ustez, mugimendu horri esker,

\_\_\_\_\_ egin ahal dugula jabetzen gara. Gaur egun, horregatik bihurtu da hain garrantzitsu: krisialdi garaietan, gauzak berriro pentsatzen ditugu eta, ondorioz, gehiegi \_\_\_\_\_

dugula jabetu gara.

## 2. Testuaren lanketa

Irakurri testua eta arreta jarri *Do it yourself* mugimenduaren filosofiari buruz esaten denaren inguruan.

### Guk geuk sortzea

*“Do it yourself* aditu edo profesionalen laguntzarik gabe zerbait sortu, eraldatu edo konpontzeko metodoa da”. Horrelaxe definitzen du Wikipediak. Izena euskarara itzuliz gero, zuk zeuk egin esan nahi du: eragile pasibo izatetik eragile aktibo izatera pasatzea, hain zuzen ere.

Altzariak, arropa, etxetresna elektrikoak, pitxiak, apaingarriak... Guztia guk sortzen ahal dugu, eta, nola egin ez dakigunean, lagunduko digun norbait aurkitu beharko dugu. Modu horretan, sortze-prozesuan jende berria ezagutuko dugu, ikasi egingo dugu eta edozer egiteko gai garela jabetuko gara. Garbigailua hondatzen bazaigu, adibidez, agian ez dugu gure kabuz konpontzen jakingo. Eta orduan, zer egin? Bi aukera ditugu: batetik, berria erostea; eta, bestetik, arazoa zein den esango digun norbaiti laguntza eskatzea eta guk geuk konpontzea. Azken horretan sinesten du *Do it yourself* mugimenduak, etxetresna elektriko edo beste edozein gauza konpontzeko edo sortzeko dugun gaitasunean, hain zuzen ere.

Guztiok ezagutzen dugu eskuekin trebea den norbait, “denetik pixka bat” egiten dakiena. Horixe izan daiteke lagunduko diguna. Hala ere, inor ezagutzen ez badugu, gero eta aukera zabalagoa aurkituko dugu gaur egun: bai sarean, bai jarraian azalduko dizuegun proiektuaren antzeko batean.

Bilboko Espacio Open gunek *Do it yourself* filosofia du oinarrian eta 2009. urtetik hainbat proiektu koordinatzen dituzte. Horien berri izateko, Bilboko Zorrotzaurre auzora gerturatu gara, Artiach gaileten fabrika zaharra zen eraikinera. Bertan, proiektu kulturalen kudeatzailearekin, Ainhoa Riveirorekin egon gara.

#### ‘Maker’ mugimendua

*Do it yourself* lehenago sortu zela kontatu digu Riveirok, baina 1950. urtera arte ez ziotela izenik jarri. “Krisi momentu batean sortu zen, jendeak aurrera egiteko beste modu bat bilatu behar zuenean. Mugimendu antikapitalistarekin zuen zerikusia eta Britainia Handian jarri zioten izen hori”.

Open Espacio eraikinean *Do it yourself*-ekin lotutako hainbat proiektu kudeatzen dituzte. Hala ere, horien artean, adar batek du garrantzirik handiena: *Maker* mugimenduak. “Teknologia berriekin du lotura eta XXI. mendearen hasieran sortu zen. Helburua ezagutza partekatzea da: zuk niri erakusten didazu eta nik zuri”. Esan beharra dago maker hitzak ‘egile’ esan nahi duela, zerbait sortzen edo egiten duena, alegia.

Zentzu horretan, oso garrantzitsua da urrian egiten den asteburuko Maker Faire azoka. Lantegiak, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen dituzte, baita kanpoko eta bertako Maker proiektuak erakutsi ere: “Guk Fab Lab proiektuan egindakoak ezagutzera ematen ditugu asteburu horretan”.

Lehenengo Fab Lab-a Massachusetts-en (AEB) sortu zen, ‘Nola egin edozein gauza?’ izenburupean. “Hainbat arlotako ikasleak batzen ziren, fabrikazio digitalarekin lotutako proiektuak sortzeko. Ikastaroaren arrakasta ikusita, mundu osora zabaldu zuten; horren ondorioz, 1.000 Fab Lab baino gehiago daude munduan zehar une honetan”. Ainhoa teknologia-eskola gisa definitu digu: “Artista, artisau, arotz, ingeniari... edonor etor daiteke. Gauzak konpontzeko edo sortzeko 3D inprimagailua, laser-ebakitzaila eta beste hainbat erreminta ditugu”.



2009. urtean atek ireki zituen Espacio Open gunek.

## Hainbat proiektu

Teknologia alde batera utzita, beste hainbat proiektu kudeatzen ditu Ainhoak Zorrotzaurreko txokoan. Izan ere, bigarren eskuko azoka antolatzen dute igandero: "Open Your Ganbara izena du, eta, martxan jarri genuenean, helburuak ekonomia zirkularra, birziklapena eta kontsumoa murriztea ziren". Arropa, liburuak, jostailuak, lanparak... denetatik aurki daiteke 78 postutan: "Jende asko etortzen da, adin guztietakoa".

Gainera, hileko bigarren larunbatean, Open Your Sormena ekimena abiarazi dute: "Hemengo sortzaileak beren lantegietan lantzen ari direna ikusarazteko espazio bat da". Horrez gain, taberna eta lorategia ere baditu gunek: "Lankide baten etxeko ateak eta leihoak berrerabili ditugu mahaiak egiteko. Azken batean, guri gehien egokitzen zaizkigun altzariak sortu ditugu, merkatuan ez daudenak eta, bide batez, berrerabilera bultzatu dugu". Artiach lantegia guztiz eraldatu dute Espacio Open guneko arduradunek eta euren kabuz egin dute guztia. Do it yourself hasieratik izan dute lanerako filosofia: "Gizarteko espazio guztietara iritsi da, izan ere, gure bizipenetan sakontzeko beharra ikusi dugu. Nire ustez, beharrezkoa da saltzen digutena alde batera utzi eta gu geu sortzen hastea".



Guk geuk sortzearen mugimenduari buruz irakurri duzuna kontuan hartuta, lotu hitz bakoitza dagokion aditzarekin. Gero ariketan sortu dituzun hitz elkarteekin ideia bana idatzi, adibidez: *Igandero bigarren eskuko **azoka antolatzen** dute.*.....



Azoka **antolatu**

Trebea / iaioa .....

Kontsumoa .....

Berrerabilera .....

Gai garela .....

Proiektuak .....

Ezagutzera .....



## 1. Bideoaren ulermena

*Do it yourself* XX. mendearen hasieran sortu zen eta helburua kontsumitzailea **egile** bihurtzea zen.

Birziklatzea, **berrerabiltzea**, ingurumena zaintzea eta gutxiago produzitzea ziren helburuak; **gure kabuz** gauzak konpondu eta gutxiago kontsumitzeko.

Espacio Open gunean, kultura, gizarte eta teknologia **arloetan** egiten dute lan eta proiektua martxan jartzeko *Do it yourself* filosofian oinarritu ziren. Ainhoaren ustez, mugimendu horri esker, **edozer gauza** egin ahal dugula jabetzen gara. Gaur egun, horregatik bihurtu da hain garrantzitsu: krisialdi garaietan, gauzak berriro pentsatzen ditugu eta, ondorioz, gehiegi **kontsumitzen** dugula jabetu gara.

## 2. Testuaren lanketa

Azoka antolatu

Trebea / iaioa izan

Kontsumoa murriztu

Berrerabilera bultzatu

Gai garela jabetu

Proiektuak kudeatu

Ezagutzera eman

### EREDUA

(Eskulanak egiten trebea naiz.)

(Kontsumoa murriztea du helburu zu zeuk egin filosofiak.) (Berrerabilera bultzatzen badugu zabor gutxiago sortuko dugu.) (Saiatuz gero, gauza asko egiteko gai garela jabetuko gara.) (Espacio Open gunean proiektu desberdinak kudeatzen dituzte.) (Egindako lanak ezagutzera emateko leku aproposa aurkitu du.)